

www.noaia.com

Noaia !!



Maddi Galbete Bolivian
izan da sei hilabetez



Maria Angeles Arruti

*“Barrutik hasi eta
kanporaino, horiz jantzita
joaten naiz Kontxara”*

Marije
Arropa denda

Denboraldi berria!

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik **EZ** duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

KMDN
hizkuntzak

CONGRATULATIONS
ZORIONAK
Cambridge University-ko azterketa gainditzeagatik

PET Aitor Arzallus
Jon Guadix
Jon Hernandez
Xabier Lazkano

FIRST Esther Arrojeria
Jon Etxabe

English courses
Matrikulazio opea zabalik

Zubiaurrenea 6 - 943 37 14 02

USURBIL
OPTIKA

943 370 269

USURBIL OPTIKA

MERKEALDI
-10% eta -20%

El deber de privacidad

UMEEN BETAURREKOETAN AUKERA EDERRA!!!

50€-ko BALEA
BETAURREKO PROGRESIBOETAN (HOYA)

-%40

Zubiaurrenea 10 **USURBIL**
© 943 370 269 eta 675 708 654

Albisteak iruditan !!

Agerreazpiko etxebizitzak, eraikitzen gertuago

Agerreazpin babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen haste-koak direla nabari da. Pisuen salmenta iragartzen duen kartel bat ikus daiteke, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze-koak diren lur eremu ondoan. Handik gertu, laster hasiko diren lane-tarako etxolak ere kokatu dituzte. Aurreko legegintzaldi amaieran, bizileku hauen zozketa egin eta aste gutxira, gobernu taldeak lanak udazken honetan bertan hastea aurreikusia zuen. Itxura guztien arabera, begi bistako aldaketa hauekin, egindako iragarpenak beteko dira. Usurbilgo Udalak 2012 eta 2013 urteak lotuko dituen negurako bizilekuok eskuragarri izatea espero du.



HASI DIRA ERAIKITZE LANAK IRAGARTZEN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitate@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Albistegietan oporrik ez

Oporretan informazioak ere atsedean hartzen duela esan ohi da. Ez dela ganorazko albisterik izaten eta inoizko oihartzun handiena hartzen dutela ustez txikieriak diren kontuek eta txutxumutxuek. Udako opor hauetan, ordea, albistegietan lanean aritu diren kazetariak inoiz baino estresatuago ibili dira. Dena emanda. Ezin iritsi.

Azkar asko ahazten ditugu gauzak, baina atzera begira jarritz gero, ezuste ugariaren lekuko izan gara. Eta dagoeneko aspaldiko kontuak izan direla ematen du, ezta. Esate baterako: Norvegiako eraso, "90eko hamarkadan diputazioek emandako opor fiskalak ez ziren legezkoak", "Presioei men eginda azaroaren 20a Zapaterok hauteskundeak aurreratu ditu" (uztailaren 29an eman zuen data hori ezagutzera Zapaterok, duela hilabete eskas!, baina dagoeneko joan den mendean edo egindako deialdia dirudi...), Gazteen erreboltak Londresen eta beste hainbat hiritan, Gazteen Munduko Jardunaldiak Madrilen, Nazioarteko burtsak burua altxatu ezinda (beno, hau ez da nobedade handia azken

urteotan), "Ligako lehen partida bertan behera", "AHTren lanak bi urterako geratu ditu Frantziako Gobernuak Lapurdin", "Espainiako Konstituzioaren erreforma"...

Alegia, uzailean eta abuztuan lanean izan diren kazetariak merezitako oporrak hartuko dituztela aurki. Besteok, dagoeneko eguneroko martxa hartu dugu. Ez dago beste erremediorik. Konturatu orduko, egunerokotasunaren soka estuak hartu gaitu eta akabo.

Gauza asko, ordea, lehen bezala aurkitu ditugu. Pasa den ikasturtea udal hauteskundeekin borobildu bagenuen, ikasturte berria ere hauteskunde giroan hasi dugu. Rubalcaba eta Rajoyren kontuekin nahikoa eta gehiegi izan dugu uda partean. Eta ez dirudi jazarpen mediatiko honek laster atertuko duenik. Alderantziz. Areagotzen joango da, itogarri bihurtzeraino. Eta hemen eta orain, azaroaren 20a hain urruti ikusten dut...

Bistan da batzuk ez digutela sekula bakerik emango. Ezta oporretan ere.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Usurbilgo alderdi politikoekin hezkuntza publikoko AUKERAtaz hizketan

Euskal eskola publikoaren aldeko taldekook, inkestaren emaitzak jaso eta NOAUA!n argitaratu ondoren, herriko alderdi politiko guztiekin harremanetan jarri behar ginela erabaki genuen. Harremanetan jarri bakarrik ez, gure taldea ezagutzera eman eta inkestaren emaitzen irakurketa amankomun bat egitera bildu behar ginela, ere erabaki genuen.

Alderdi guztiekin (Bildu, Aralar, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-PSOE) bilerak atseginak eta baiko-rrak izan ziren, guztiek eskertu zigiten gure aurkezpena eta egindako lana. Denek ikusten dute euskal eskola publikoaren alde dagoen usurbildar multzo bat badagoela eta erantzun bat eman beharko zaiola. Oso positibotzat hartu zuten, Julen Bengoetxearen (Gipuzkoako

Hezkuntza Ordezkaría) presentzia gure artean. Bildu gure herrian alderdi nagusia izanik, hitz-egindako gauza askoren artean, beraiek ere prest zeudela erantzun bat emateko arazo honi esan ziguten. Euskal Eskola Publikoa eta Udarregi Ikastolaren arteko uztartze posible bat aztertze edo beste formula berri bat asmatzeko prest egongo lirakeela esan ziguten. Proiektu bat eratzeko eskatu ziguten Bildukoek.

Guk ere, oso baikortzat hartu dugu alderdi politikoekin egindako bilera erronda hau, eta gure konklusioak atera ere atera ditugu: lehena, hasi berri dugun ekimen honek jarraitu behar duela eta indartu behar dugula ahal den neurrian. Bigarrena, nolako Euskal Eskola Publikoa nahi dugun Usurbilen? galderari erantzun idatzi

bat eman behar diogula eta horretarako proiektu bat prestatu behar dugula. Hirugarrena, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaría eta Gasteizko Administrazioaren bultzada handi bat lortu behar dugula.

Badakigu bidea ez dela erraza izango, lan asko egin beharko dugula, denbora luzatu egingo zaigula, buru hauste dezente edukiko ditugula. Baina zailtasun hauek guztiak gainditu behar ditugula, gure herrian hezkuntza ezberdin aukera bat egoteko. Klabea AUKERA dela iruditzen zaigu. Gurasook, gure haurrak Ikastolara edo Euskal Eskola Publikora eramateko posibilitateaz aukera eduki nahi dugulako.

"AUKERA" Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Taldea

Berritua izan da Kirol Patronatuko zuzendaritza batzordea

Usurbilgo Kirol Patronatuko zuzendaritza batzordeko kide berrien izendapena onartu zuen udalbatzak uztailaren 26ko osoko bilkuran. PSE-EE-ko udal ordezkaria abstenitu zen, gainerakoak proposamenaren alde agertu ziren. Kirol Patronatuko lehendakaria Iñaki Ugarte Aguirre Bilduko ordezkaria izango da. Aipatu erakundea gainerako kideok osatuko dute: Josu Portu Alzagak, Lontxo Zubiria Caminok eta Luismari Ormaetxea Santsiñenak. Hauen ordezkioak, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Maria Isabel Korta Etxeberria eta Miren Josune Urquia Carrera izango dira hurrenez hurren.

Bestalde, bada non aukeratua Kirol Patronatutik 2011-2012 ikasturte berri-rako luzatu duten kirol eskaintzan.

Aurtengo ikastaroak

Aerobik, mantentze gimnasia, pilates, spinning, tonifikazioa, banakako entrenamendu saioak giharketa gelan, 3.adin eta ezinduei zuzenduriko ikastaroak, haur zein helduei zuzenduriko igeriketa saioak... Zerrenda luzea da, ordutegi eskaintza zabala eta abonatuak prezio bereziak izango dituzte interesa piztu dien jardueretako batean izena ematen badute. Iazko ikasturtean ikastaroren batean parte hartu zuten herritarrek izango dute aurrenik, izena emateko lehentasuna, irailaren 15era arte. Bigarren hamabostaldian denentzat irekiko da aipatu epea. Informazio gehiago Kiroldegian bertan (edo 943 372 498).



IKASTAROTETAN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DA KIROLDEGIAN.

Atalluko Plan Partzialaren bigarren aldaketa, onartua

Bildu eta PSE-EE-ko udal ordezkarien babesarekin behin betirako gehiengo osoz onartu da Atalluko Plan Partzialaren bigarren aldaketa. Aurka agertu zen Hamaikabat udal taldea, eta abstentziora jo zuten aldiz, Aralar eta EAJ-PNV-ko ordezkariak erabakia hartzeko unean, uztailaren 26an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Udalbatzaren onarpena jasota, Plan Partziala Foru Aldundira bidali eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzekoak ziren.

%3,22 igoko dira Eguneko Zentroko erabiltze prezioak

Eguneko Zentroa kudeatzen duen GSR enpresak Usurbilgo Udalarri eginiko proposamena onartu du udalbatzak. Astelehenetik ostiralera, nahiz asteburuetan orain arte indarrean zeuden prezioei %3,22ko igoera aplikatzea aho batez onartu zuten bost udal taldeek. Aurrerantzean, iazko igorener erabiltzaile bakoitzak euro bat edo bi gehiago ordaindu beharko ditu. 48,75 euro astelehenetik ostiralera (lehen, 47,23 euro). Larunbat eta igandeetan 51,26 euro (lehen, 49,66 euro). Igoera iazkoaren antzerakoa da.

Maddi Galbete, ikasturte batez Bolivian

Heziketa berezia ikasten ari zela, azken ikasturtea atzerrian, Bolivian igarotzeko aukera suertatu zitzaion Maddi Galbete Kalezarreko NOAUA!-ko kronistari. Ez zuen bitan pentsatu eta baiezkoa eman zuen, betidanik izan baitu atzerrira joateko gogoia. Oporraldi garai hauetan bidaiatzeko planak ugariak direnean, atzerrira joateko eta errealitate desberdinak ezagutzeko beste modu bat hautatu du Maddik.

NOAUA! Nolatan suertatu zitzaizun Boliviara joateko aukera?

Maddi Galbete. Aukera iaz, bigarren ikasturtean sortu zen. Normalean hiru hilabeterako bidaiak izaten da, baina sei hilabeterako eskaria egin nuen. Asko informatu eta saiatu behar zara plaza lortzeko. Azkenean notaren arabera aukeraketa egiten dute eta egokitu zitzaidan.

MADDI GALBETE

“Egunero oinez joan behar genuen, 40 bat minutu Canchas Blancas izeneko eskolara”

N. Baiezkoa jasota, bidaiara joan arte prestaketa lan asko eta denbora gutxi agian?

M. G. Bidaiak ez zegoen oso orientatua. Donostiako Haurralde Gobernuak Kanpoko Erakundeak Boliviako beste Gobernuak Kanpoko Erakunde (GKE) batzuen kontaktuak eman zizkiguten, eta haiekin harremanetan jarri ginen. Boliviara joan arte, guztia inkognita handi bat izan zen, ez genekien ezer. Baina iritsi ginen azkenean.

N. Bakarrik joan zinen?

M. G. Ezagutu ez eta irakaskuntza ikasten ari zen beste neska batekin joan nintzen. Oso ondo moldatu ginen.

N. Boliviarekin izandako lehen



MADDI GALBETE ERDIAN, IKASLEEZ INGURATUTA.

kontaktu hartze hori nolakoa izan zen?

M. G. Eromena izan zen. Bakarrik iritsi ginen Santa Cruzera, eta Sucre-ra joateko hango GKE-koen helbide elektronikoa besterik ez genuen. Esan ziguten lehen gauza, Bolivian gauez autobusik inoiz ez hartzeko izan zen. Egunez egongo zelakoan, geltokira joan ginen, baina gauez bakarrik zegoen autobusa. GKE-koei telefonoz biharamunean noiz iritsiko ginen jakinarazi genien eta gauez autobusa hartu genuen. Nire bizitzako hamalau ordurik luzeenak izan ziren. Amildegi ondotik joan ginen hamalau orduz eta gauez, ikaragarria izan zen. Arriskutsua zen, hortik aurrera ez genuen autobusa behin ere gauez hartu. Irtsi ginenean oso ondo hartu gintuzten. GKE-aren funtzionamendua erakutsi ziguten, gerora praktikekin hasteko.

N. Zertan oinarritzen zen zuen egitekoa?

M. G. Erdi eta erdi egin genuen. Egonaldiaren erdia hirian egin genuen, bestea herri txiki batean, mendi puntan, Ocurin. Egunero oinez joan behar genuen, 40 bat minutu Canchas Blancas izeneko eskolara. 28 umeko eskola txiki bat zen, oso indigena. Denek ketxueraz hitz egiten zuten. Aurpegia zartatuta, erreta zuten denek. Irakasle bakarra zegoen 28 umerentzat. Bi joan ginenez, adinka banatu ginen. 8-9 urte arteko

umeak hartu nituen nik. Egunero arlo desberdin bat lantzen zen. Dena oso inprobisatua zen. Hango eta hemengo metodologiek ez dute zerikusirik.

N. Errealitate erabat desberdinean kokatutako eskola hau nolakoa zen?

M. G. 50 urte atzera joan izan bagina bezala zen. Erregelarekin jotzen zuen irakasleak, ez zitzaigun batera gustatzen. Irakaslea oso serioa zen, erabat autoritarioa. Lehen egunean eskolatik inpresionatuta aterata ginen. Eskola hartan hiru hilabetez zer egin behar genuen galdezten genion geure buruari. Gaizki.

N. Irakaslearen jarrerarekin, zer tarte zenuten zuek zuen lana egiteko?

M. G. Hasieran ez ginen ausartzen metodologia guztiz aldatzera, haurrak horretara zeuden ohituta. Gu denbora baterako geunden han eta gero joan egingo ginen. Ezin zen ezta ere dena goitik behera aldatu. Orduan, dinamikak sartzen saiatzen ginen, jolas gehiago... Beraiek idatzi besterik ez baitzuten egiten.

N. Zuen planteamenduarekin arazorik izan zenuten?

M. G. Ez, irakasleak ez baitzigen ezer esaten. Gure artean ez zegoen komunikaziorik, berak ere gaztelera hurrek baino gutxiago ulertzen zuela zirudien. Oso zaila izan zen.

“Oinarrizkoena irakasten zitzaien”

NOAUA! Praktika saioetatik kanpo ordutegian, nolakoa zen zuen egunerokoa?

Maddi Galbete. Goizeko 8:00etatik 15:00etara eskolan izaten ginen. Gero ordu piloa izaten genuen gauera arte. Mendi punta hartan ez zegoen ezer, ondoko herria berriz kilometro askotara. Gogorrena hori zen. Zortzietarako ohera joaten ginen. Bertakoekin egoteko hizkuntza ere muga handia zen. Horregatik, GKE-koekin harreman estua egin genuen, gure familia zen azkenean.

N. Elkarbizitza horretan, bertako errealitatearen berri jasoko zenuten. Zer aipa dezakezu horren inguruan?

M.G. Atentzio gehiena deitu zidana hasieratik, amatasunarena izan zen. Denak 14 urterekin amak ziren. Egun batean 16 urteko neska bat etorri zitzaigun, oso kezkatuta, hiru urte zeramatzala mutilarekin eta umeak ezin zituela izan esanez. Umeak ezin baditut izan, mutil honek utziko nau eta bizi osorako ezingo dut lortu beste mutil bat, zioen. Han mutil batekin ibiltzen bazara, uzten dizun unean jada inork ez dizu maite. Eta umeak ezin badituzu izan, zure funtzioa galdu duzu. Haienez ez duzu “ezertarako” balio.

N. Beraz zeintzuk dira emakume eta gizonen rolak?

M.G. Umeak izan eta amatasuna emakumearen kasuan. Gizonezkoen rola zen, baratzetan lan egitea. Uzta garaian, emakumeak ere laguntzen zuen. Bestela, ikusten zenuen herria ume eta emakumez betea. Emakume bakoitza bere etxean zegoen, euren artean ez zuten harreman handirik. Oso tristea zen.

N. Gerora hirira zoazte, Sucrera. Hor aldaketa dator?

M.G. Bizitza erabat aldatu zitzaigun, hobeto geunden. Hiriko proiektuari “eskola mugikorra” deitzen zitzaiogen. Furgoneta batean egunero auzoz auzo joaten ginen. Kalean lan egiten zuten haurrak lan mundutik ateratzea zen berez helburua, jolasen bidez. Umeak ume sentiaraztea, momentu batez bazen ere.



“OINARRIZKOENA IRAKASTEN ZITZAIEN: IRAKURTZEN, IDAZTEN ETA ZENBATZEN”.

Egun osoa zapatak edo autoak garbitzen, adreiluak eramaten... igarotzen zuten. Ume gehienak auzo marjinaletakoak ziren, askorentzat eskola bakarra geuk ematen geniena zen. Oinarrizkoena irakasten zitzaien; irakurtzen, idazten eta zenbatzen.

MADDI GALBETE

“Piloa inprobisatzen ikasi dut. Material gutxirekin gauza asko egiten genituen”

N. Herri txiki horretatik hiriburura, zer desberdintasun sumatu zenituzten?

M.G. Hirian asko nabarmentzen zen klase banaketa. Herrian azkenean denak berdinak ziren, ez zegoen mailarik Santa Cruzera lehen aldiz iristean, oso pobrea iruditu zitzaiogen. Gero sei hilabete pasa eta hegazkina hartzeko berriz Santa Cruzera bueltatzean, erabat aberatsa iruditzen zitzaiogen. Bizitakoa bizi eta gero, sei hilabetetan zenbat aldatu zen pobrezia-erikiko genuen geure ikuspuntua. Indigenak direnen eta ez direnen artean desberdintasun handiak daude. Indigenak oso itxiak dira, baina euren kulturak eta ohiturek indar handia dute eta oso polita da hori. Hirian ere indigena asko dago, baina gehiago entzuten dakite. Kontrastea oso nabaria da.

N. Batzuetan zalantzan jartzen da GKE-en lana. Zure esperientziatik zer esango zenuke?

M.G. Benetan eraginkorra izateko han, egonaldiak ere luzeagoa behar luke. Gure moduko bidaiak onak dira pertsona sentibilizatzen. Askoz gehiago irabazten du joaten den pertsonak hangoek baino. Pena handia ematen zidan, egon naizen leku indigenaren kasuan nola ez zen gehiago bultzatzen ketxuera, galtzen ari baita. Hirian probetxu handiagokoak ginen, astialdi mundukoa zen gehiago, jolas eta baliabide gehiago genituen. Gehiago balio du han zer dagoen ikusteko, eta gero ikasitakoa hona ekartzeko.

N. Esperientziak zer eman dizu?

M.G. Heziketa bereziari buruz ezer gutxi. Praktikak egitera joatean, egin nuenak ez du ikasitakoarekin inolako zerikusirik. Baina gero bai, piloa inprobisatzen ikasi dut. Material gutxirekin gauza asko egiten genituen.

N. Zer esango zenioke zure antzeko bidaiak egin nahi duen horri?

M.G. Joan nahi duzula oso argi izan arren, inoiz ez da erraza. Aspalditik nahi nuen zerbait zen. Halere, joateko unean kosta zitzaidan joatea. Behin han egonda, ez naiz ezertaz damutzen. Benetan joan nahi duen jendea animatzen dut, bestela hara iritsita behera etortzen zara segituan.

Martxan da eskualdeko turismoa garatzeko egitasmoa

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo sailburuordetza eta Basquetour turismo agenzia 2010-2013 Euskadiko Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana bultzatzen ari dira. Sektore honetan diharduten eragile publiko eta pribatu guztien partehartzea ezinbestekotzat jotzen dute. Horregatik, eskualde mailako lankidetzataldeak jarri nahi dituzte martxan. Sustapen lan hori Behemendik egingo du Donostialdean eta, besteak beste, Usurbilgo Udalak hartu du parte ekimen honetan.

Administrazioak beharrezkotzat jo du turismoguneen garapena sustatzen joatea, horretarako, eskualdeetako turismo-lankidetzarako erakundeak sortzea bultzatu nahi du. Honenbestez, Donostialdea eskualdeko (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil) lankidetzata burutuko duena Behemendi elkarte izatea adostu da, bi helbururekin:

1.-Turismo-dinamizaziorako planen bitartez eskualdeko turismo-garapena sustatzea.

2.- Eskualdean turismo-sektorearekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden eragile publiko eta pribatuekin elkarrekin lan egitea.

PARTEHARTZEA HELBURU

“Behemenditik eskualdeko eragile turistiko desberdinei egingo zaie deialdia”

Eskualdean diharduten eragile pribatuak publikoetara hurbiltzeko partaide-



SAN ESTEBAN ELURRETAN (ARGAZKIA: IÑAKI LABAIEN).

tza-mekanismoak sortzea aurreikusten da. Kasu honetan, Behemendi izango da mahai instituzionala, turismo mahaia eta mahai subsektoriala antolatu eta kudeatuko dituen.

Mahai instituzionala

Eskualdeko sei udaletxeek parte hartuko dute eta turismo mahaiarengandik proposamenak jaso, aztertu eta onartuko ditu. Hartutako erabakien berri emango dio Turismo mahaiari eta Gipuzkoako zein EAEko beste Turismo mahaiekin elkarlana egingo du.

Turismo mahaia

Eskualdeko eragile turistiko publiko-pribatuek osatuko dute turismo mahaia eta hauen iritziak/proposamenak jaso (urteko plangintza, eskualdeko plan estrategikoa,...) eta onartutako ekintzen proposamena mahai instituzionalera pasako ditu.

Mahai subsektorialak

Subsektore turistiko pribatu desberdinetako eragileek osatuko dituzte mahai hauek eta honenbestez mahai hauen iritziak/proposamenak jaso ondoren, adostutako ekintzen proposamena turismo mahaira pasako dituzte.

Eragileei deialdia

Iraila-urritik aurrera osatuko dira mahai instituzionala eta turismo mahaia, eta Behemenditik eskualdeko eragile turistiko desberdinei egingo zaie deialdia elkarlanean aritzeko eta eskualdeko turismo-garapena sustatzeko.

Informazio gehiagorako

Gai honen inguruan informazio gehiago nahi izanez gero Behemendiko teknikaria den Ainhoa Amundaraini deitu (656 705 243) edo idatzi hurrengo helbide elektronikora:

behemendi@telefonica.net

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

“Kontxako Banderara joateko asmoa dut, ikus dezatela galtzen ere badakigula”

Usurbilen bizi den arren, sortzez Aiakoa da, eta Orion ditu senide gehienak, baita bihotza ere. Batez ere estropada kontuetan, arrauna oso hurbiletik bizi baitu. Horren erakusle, urtero moduan, igandeotan, Orio kanpoan geratu arren, Kontxako Banderara goitik behera horiz jantzita joateko da. Une zailenetan ere hor jarraitzen duen zaletuetako bat baita Maria Angeles Arruti herritarra. Lerroon bidez, goiari eusteko mezua helarazi nahi die oriotarrei.

NOAUA! Oriori gertaturikoa, zaletu moduan nola bizi izan duzu?

Maria Angeles Arruti. Ez dut ezagutu halakorik. Pena ikaragarria da. Talde barruko kontuak ez ditut gehiegi bizi. Baina entzun berri dudaren arabera, esan didate, Karlos Argiñanok ere eskaini omen du bere laguntza, baina Jose Luis Korta barruan izatekotan. Baita Aizperrok ere. Inor ofenditu gabe, erorita gabiltzanean makurtzen jakin behar dugula uste dut. Mus jokalaria naiz, eta irabazi baino lehen galtzen jakin behar dela erakutsi didate beti. Laguntza behar bada, eskatzen ere jakin egin behar da.

MARIA ANGELES ARRUTI

“Aurten, zazpi metroko zapi berezi bat eta hiru bandera jarri ditut”

N. Zein litzateke zure ikuspegitik, egungo egoera hobetzeko irtenbide bideragarriena?

M. A. A. Kanpoan dauden oriotarrak ekartzeko aukera balego, zerbait egin litekeela uste dut. Agian ez zen utzi behar denak alde egiten. Baina kluba zer baldintzetan dagoen ere ikusi behar da.

N. Orio ez da Kontxako Banderarako sailkatu. Donostiara joango al zara? Kinielarik egiterik bai?

M. A. A. Kontxako Banderara joateko asmoa badut, ikus dezatela galtzen ere



TXIKI LARRAÑAGA PATROIA ETA MARIA ANGELES ARRUTI, 1998KO BANDERAREKIN.

badakigula. Emakumeetan Orioren alde egingo nuke, baina badakit Getaria-Tolosakoak oso gogor dabiltzala. Gizonezkoetan, lehia nahiko paretdua da. Kontu izan, sailkapen proban hamai-ka segundotara sartu zirela zazpiak. Bestalde, Urdaibain senitartekoa dut, Kaikun Iñaki Errasti aginagarra dago. Udabe ere hor dugu.

N. Ezagunak, senitartekoak beste talde batzuetan izanik, Orioko zaletu izateari eustea zaila egiten al zaizu?

M.A.A. Ez. Neure kolorea, horia, eta herria, Orio defendatzen ditut. Neure nortasuna, betidanik Orio izan da eta ez dut aldatuko. Iloba izan dut San Pedron jokatzeko. Baina ni oriotarra naiz, guztia-zen gainetik.

N. Goitik behera horiz jantzia joan ohi zara estropadetara. Aurretik, zein da betetzen duzun errituala?

M. A. A. Abanikoak, musuzapiak, trajeak, pololoak, oinetakoak, gona, betaurrekoak, aterkia, pamelak, txapelak, poltsak, oparitu zidaten bikiniak... Kontxara barrutik hasi eta kanporaino, horiz jantzita joaten naiz.

N. Halere, zure itxuraz haratago doa Oriorekiko duzun zaletasuna?

M. A. A. “Seiscientos” txiki bat nuen. Urte batean oportetarik etorri eta horiz margotzeko asmoa nuen. Semeak neure asmoaren berri izanik, ni etortzerako urdinez margotu zuten, Aginagako kolo-

rearekin. Bestalde, zinta hori batekin, globo horiz josita joaten nintzen autoan Kontxara. Bilatzen dudak hori koloreko guztia erosten dut; belarritakoak, lepo-koak... Denetarik dut. Etxean ere, balkoi luzea dut eta banderak jartzen ditut. Aurten, zazpi metroko zapi berezi bat eta hiru bandera jarri ditut. Aurreko bi urteak, traineruko kide adina kamiseta, hamalau, soka batetik balkoitik teilatura zintzilik jarrita izan ditut. Loreak ere hamarretik zortzi horiak ditut.

“Laguntza behar badute, hor gaude zaletuak animatzeko”

N. Une zail hauetan, zer esan nahi zenieke Orioko arraunlariei?

M. A. A. Animurik ez galtzeko behin ere. Erortzen denak altxatzen jakin egiten du. Saiatzeko burua tente-tente izaten. Laguntza behar badute, hor gaude zaletuak animatzeko. Heltzeko gogor eta burua tente eramateko. Urte hobekak etorriko dira. Eta aupa neska! Animuak bereziki bi usurbildarrei.

N. Zaletuen paperak nolakoa behar du egoera berri honetan?

M. A. A. Zaletuak behar du, une on eta gogorretan hor egotea. Irailaren azkenera arte, banderak eta gainerakoak ez ditut kenduko. Estropada egunean Orioko bandera jarriko dut. Eutsi goiari!

Gatibuk joko du Santueneko festetan

Santuenearen txanda da orain. Astebete barru, irailaren 16tik 18ra jai giroa nagusituko da bertan, Jai Batzordeak prestatu duen ekitaldi eskaintza zabalarekin. Haur jolas, dastatze saio, dantzari edota kantu-afariarekin batera, bada azpimarratzeko moduko hitzordu bat aurtengoan; Gatiburen kontzertua, irailaren 16an. Eta hilaren 18an, Udarregi Sariketaren lehen finalerdia jokatuko da.

Santueneako jaietan talde bizkaitarren kontzertua ospatuko zela, herritarren ahotan ibili da uda honetan. Hitzordu zehatza jakitea falta zen. Egitarauari erreparatuta, irailaren 16an, ostiral gauean eskainiko du kontzertua Gatibuk. Sai taldeak ere parte hartuko du 23:00etan hasiko den ekitaldian. Itzartu taldearen dantzaldiak borobilduko du arratsaldeko 17:00etan txupinazoa jaurtita abiatuko diren jaietako lehen eguna.

48 orduz, denetariko ekitaldiak tartekatuko dira Santuenean. Irailaren 17a, nagusiki haurrei zuzendutako ekitaldiekin joango da; jolasak, txokolatada, buruhandiak... Gaez, ohiko tandemak; Josune Aranbururekin kantu-afaria lehenik, eta gero goizaldera arte, Dj Larraren emanaldiak dantzan jarriko ditu bertaratutako guztiak. Dantzari, toka txapelketa eta azken trakak borobilduko dituzte Santueneako festak.

Udarregi Bertso Sariketako lehen finalerdia, Santuenean

Gatiburen kontzertuarekin batera, bada aurtengo jai egitarauan nabarmenetzeko moduko beste berrikuntza bat ere. Bota Punttuba bertso eskolakoak estreinakoz antolatzen ari diren Udarregi Sariketa. Belaunaldi desberdinetako bertsolariak bildu nahi dituzte ekimen berri honetan. Beteranoak eta gazteak aurrez aurre jarriko dituzte. Irailaren 18an Santueneako jaietan ospatuko den herri bertso-bazkarian, sei heldu ariko dira bertsoan. Udarregi Sariketako lehen finalerdia izango da. Bigarrena, Aginagako San Praixkuetan ospatuko da, eta hitzordu horretan, sei bertsolari gazteren saioaz gozatzeko aukera egon-



GATIBU TALDEKOAK IRAILAREN 16AN IZANGO DIRA GURE ARTEAN.

go da.

Bota Punttubakoek Santueneako eta Aginagako Jai Batzordeekin elkarlanean antolatu duten txapelketa parte hartzailea izango da. Zeresanik izango dute beraz, bertsozaleek. Batetik sariketarako gaiak proposatu ahal izango dituzte, bertso eskolatik berri eman dutenez, "tabernetan jarritako kutxen bidez eta

emailez". Bestalde, bi finalerdietatik finalera igaroko diren bi bertsolari hautatzeko epaimahai bat egongo da. Saio nagusirako hirugarren bertsolaria ordea, zaletuek erabaki beharko dute.

Antolakuntzak aurreikusitakoaren arabera, azaroan ospatuko da final handia. Datorren astekarian zehaztasun gehiago.

Aurtengo jai egitaraua

Irailak 16, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada Ibai-Ondo elkartearen aurrealdean.
Ondoren, herriko globo gerra.
18:30 Buruhandi eta Zumartxan txaranga.
19:00 Sardina jana trikipoteoarekin.
21:00 Musikarien afariak, DIA supermerkatua eta Aialde-berri sagardotegiari esker. Ogitartekoak egongo dira txosnan afaldu nahi duenarentzat
23:00 Sai eta Gatibu taldeen kontzertua.
Jarraian, dantzaldia Itzartu taldearekin. Ondoren, txokolatada.

Irailak 17, larunbata

11:00 Haur jolasak.
14:00 Haur bazkaria (norberak bere bazkaria ekarri behar du, edariak eta postrea banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30etatik 16:00etara bitartean inskripzioa).
17:30 Txokolatada Tragoxka tabernaren aurrean.
19:00 Buruhandiak.
20:30 Kantu afaria Josune Aranbururen laguntzarekin.
00:00 DJ Larra goizaldera arte.

Irailak 18, igandea

11:00 Toka txapelketa.
12:00 Hamaiketako Tragoxka tabernan.
14:00 Herri bertso-bazkaria.
17:00 Herriko dantzariak.
18:00 Ibarrako "Allur" dantza taldea.
Segidan, buruhandiak.
19:30 Piper dastaketa Zumartxan txarangarekin.
21:00 Jaien amaiera: traka eta suzko zezena.

Kanta berriarekin itzuli eta traka burrunbatsuarekin joan dira Atxegaldeko festak

Aldaketak iragarri zituzten aurten ospatzekoa zen bosgarren ediziorako eta aurreikuspenak bete dira. Itxura berrituta eta indartuta itzuli dira Atxegaldeko festak, jaietarako abesti eta jantzi berriekin. Harrera jendetsua izan dute antolatu diren ekitaldiek, bereziki, kantu afari eta kontzertuek.

Bosgarren urteurrena ez da oharkabean pasa. Doinu eta itxura berriarekin ospatu dira Atxegaldeko aurtengo jaiak. Azken hileotan hainbat auzokide eta herritar prestatzen aritutako kanta berriak leherrarazi zuen jai giroa auzoan, abuztuaren 26an. Oholtza gainean musikari eta abeslariak bildu ziren estreinaldi unerako. Behean, festa gunea

kokatzen den "Parkeipeko plaza" ezagunean, Jai Batzordeko kideak festetako kamiseta arrosa eta lepoan zapi berria zutela dantzan ekin zioten ospakizun asteburuari, abestia entzuten hasitakoan. Txupinazoaren ostean izan zen, eta ondorengo 48 orduetan zetorrenaren iragarpena baino ez zen izan.

Bizardunak, Itziarren Semeak eta Dj Larraren emanaldiak bertako zein kanpoko lagun ugari erakarri zuten. Jendetsua izan zen baita, abuztuaren 27an Josune Aranburuk girotu zuen kantu-afaria. Gaurko eta atzoko euskal kantuen errepaso ederra egin zuten han zirenek, giro ezin hobean. Halere, egunez ere izan zen bai zer ospatua Atxegalden. Abuztuko azken larunbatean haurrei zuzendutako ekitaldiak nagu-



ARRAKASTA IZAN DU ATXEGALDEKO JAIEN ABESTIAK.

situ ziren, auzotarrak lehia jarri zituen boleibol txapelketarekin batera. Eta festetako azken egunean, patata tortilla txapelketa ospatu zen, eta jai giroari behar bezalako amaiera emateko, traka koloretzu bezain burrunbatsua. Hurrengo urteko jaietarako gutxiago falta da jada.

Usurbildarrak Donostiako Alde Zaharreko pilota txapelketen finaletan

Joan den abuztuaren 31n Donostiako Alde Zaharreko pilota finalak jokatu ziren. Txapelketa honetako 5 finaletatik bitan usurbildarrak ziren. Kadete mailan Ibargoien usurbildarrak

Telleriarekin jokatu zuen eta 18-7 galdu zuten Iturengo bikotearen aurka. Handien mailan ordea, Huizi eta Urruzolak Hernaniko Esnal eta Lizeagari irabazi zieten 22-18 (Berriemaile: Iñaki Agirresarobe).



URRUZOLAK ETA HUIZIK IRABAZI ZUTEN HANDIEN MAILAKO TXAPELKETA.



KADETE MAILAN, IBARGOEN ETA TELLERIA FINALERA IRITSI ZIREN.

Agoizko Erraldoi eta Buruhandien Topaketan

Santixabel jaietan, erraldoiak Stehen aldiz dantzan aritu ziren. Agoizko erraldoiekin batera kalejiran ibili ziren. Abuztuaren 14an, ordea, usurbildarrak izan ziren Agoizera gerturatu zirenak. Erraldoi eta Buruhandien XXIV. Topaketan hartu zuten parte. Beraiekin batera, hainbat usurbildar ere animatu ziren. Argazkia: Iñaki Agirresarobe.



USURBILGO BI ERRALDOI, AGOIZKO TOPAKETAN.

Emakumeen Pala Txapelketako argazkiak, ikusgai

Urrian emakumeentzako pala ikastaro berri bat hasiko da

Udaberrian ospatu zen Usurbilgo I. Emakume Palarien Txapelketa orain iruditan ikus daiteke, Kiroldegiko sarreran. Zaloa Arnaizek eta Karmele Mendik ateratako argazki bilduma bisitatzeko aukera egongo da Oiardon, irailaren 30era arte.

Udalak antolatu du erakusketa, eta irudietan islatzen denari erreferentzia eginez aipatzen denez, “esperientzia ederra izan da, partida bikainak ikusi ditugu, lehia eta umore ona ederki uztartuz”. Maiatzean hasi eta Santixabeletan amaitu zen estreinako txapelketan zortzi bikotetan banatutako hamasei emakumeek parte hartu zuten. Arantxa Unanuek eta Nagore Leozek irabazi zuten ekainaren 28an jokatu zen finala.

Pala ikastaroa

Udaberriko txapelketaren ostean, Kirol Patronatuak sustatuta, Usurbilgo Pilota Elkartek emakumeei zuzenduri-



IRAILAREN 30ERA ARTE IKUSGAI IZANGO DIRA OIARDO KIROLDEGIAN.

ko pala ikastaroa antolatu du. Urrian hasi eta maiatzera arte luzatuko da. Saioak astero burutuko dira, ordu eta erdiz. Interesdunek 48 euro ordaindu beharko dituzte.

Irailaren 12tik 28ra bitarteko tartea egongo da izena emateko, kiroldegian.

Bertan egongo da ordutegiak kontsultatzeko aukera.

Antolatzaileek berri eman dutenez, ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango inoiz palan aritu izana. Baldintza bakarra, gutxienez 16 urte beteak izatea da.

Emakumeei zuzendutako

bi tailer antolatu ditu Udalak udazken honetarako

Emozioak lantzen eta Harremanak eta espazio propioa izena dute Usurbilgo Udalak urritik abendura antolatu asmo dituen tailerrak. Biak emakumeei zuzenduak daude. Zehaztasunen berri ostegun honetan, irailaren 8an emango da Artzabalen, 19:00etan hasiko den ekitaldian.

Udalak aurreratu duenez, Pepa Bojo psikologoak zuzenduko du erdaraz, “Emozioak lantzen” izeneko tailerra. Ohartarazi dutenez, bertan, “mugitzen gaituzten emozioak landuko ditugu:

harreman afektiboak, lana, gizartea. Emozioak askatzeko eta modu positiboa erabiltzen ikasteko tailerra da”. Saioak ostegunero burutuko dira Bake Epaitegi atzeko lokalean: 14:30-16:30.

Harreman afektiboaren espazioa

Bestalde, Nagore Aranburu psikologoak zuzenduko du euskaraz “Harremanak eta espazio propioa” izeneko tailerra. “Tailer honetan espazio propioa eta harreman afektiboaren espazioa landuko dugu: nola sentitzen gara gure espazio propioan, nola harreman afektiboetan –bikotea, familia, lagunak- zeintzuk dira

gure espazio erreserbatuak, eta zer partekatatu nahi dugu”, iragartzen du antolakuntzak.

Saioak astelehenero burutuko dira, 17:00-19:00 artean Bake Epaitegi atzeko lokalean.

Izen ematea, irekitzear

Irailaren 12tik 28ra eman ahal izango da izena tailerrotan; astelehen, astearte eta asteazken goizeko 10:00etatik 14:30etara Udal Parekidetasun zerbitzura deituta, 943 371 951 telefono zenbakira alegia, edota berdintasuna@usurbil.net helbidera mezu bat bidalita.

Einean Guraso Eskolak ikastaro ugari prestatu ditu

